

Bioteknologia eztabaidagai

Lopez Viña, Rakel
Marketin Saila/Elhuyar Fundazioa

Bioteknologiaren aurrerapen osasungarria eta jasangarria, horixe da Leire Escajedo San Epifanio zuzenbidean doktoreak idatzi duen liburua. Nazioarteko Bioetika Elkarteak (SIBI) ikerkuntza-saria eman zion 2006an liburu honengatik, eta, orain, Elhuyar Fundazioaren eskutik, euskaraz argitaratu du. Jatorrizko liburua gaztelaniaz idatzita dago, eta ingelesera ere itzulita dago.


BIOTEKNOLOGIA MODERNOAK AURRERAPEN HANDIAK ERAGIN DITZAKE NEKAZARITZAN, elikagaigintzan, industriaren zenbait arlotan... Baina teknologia horrek, halaber, zenbait gatazka sortu ditu, eta gizartean pil-pilean dagoen eztabaida bat ere bada, bereziki osasun- eta ingurumen-gaiei dagokienez.

Escajedok hamar urte daramatza *Zuzenbidea eta Giza Genoma katedran* gai honi buruzko ikerketan, eta liburu honetan “nazioarteko, eskualde mailako eta nazio mailako hainbat erakun-

dek bioteknologia nola arautu duten aztertu dut, haren garapena osasungarria eta jasangarria izan dadin”.

Erakundeek modu askotara heldu diote bioteknologiari, eta arauak jartzeko orduan ere gatazkek sortzen direla aitortzen du Escajedok: “Alde batetik, Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) dugu eta, bestetik, Nazio Batuen Elkarte (NBE). NBEk inguru-

menaren eta herrialde txiroen gaiak hartzen ditu kontuan, baina MMAk dio ez dela produktu hauen auzia eta merkataritzari bere bidea egiten utzi behar zaiola”.

Irakurleak hainbat gai aurkituko ditu liburu honetan, modu labur eta zehatzetan azalduta: aurrerapen bioteknologikoen gaur egungo egoera, genetikoki eraldatutako organismoek sortzen dituzten auzi etiko-sozial eta juridikoen profila, bioteknologiaren egungo segurtasun-esparru erregulatuak, bioteknologiaren eta merkataritza askearen arteko gatazka... “Gai bakoitza planteatu dudanean, sarrera gisa labur esplikatu dut non zegoen koska, informazio eta zehaztasun asko behar baitira ikusteko arazoak non sortzen diren”. 



E. CARTON

Leire Escajedo

Leire Escajedo (Bilbo, 1973) Zuzenbidean lizentziaduna eta doktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle laguna Konstituzio Zuzenbidearen sailan. BBVA Fundazioaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, EHUren eta Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrako ikertzailea da, eta EHUko Bioetikari eta Elikagaien Segurtasun eta Kalitateari buruzko masterretako irakaslea.

Proiektu honek Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreordetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso du.